

EDIKTUA, 2007ko irailaren 5ekoa, Lan eta Gizarte Segurantzaren zuzendariarena, Gikautxo, SL enpresari 07.0082.20.01.01.02 espedientearen gainean hartutako ebazpena jakinaraztekoa. 23111

## HERRIZAINGO SAILA

IRAGARKIA, Herritarren Segurtasunaren Babesari buruzko otsailaren 21eko 1/1992 Lege Organikoan ezarritakoa haustearren irekitako espedienteetan (behean adierazten dira) Ertzaintzaren zuzendaria emandako ebazpenak jakinarazteko dena. 23112

IRAGARKIA, Herritarren Segurtasunaren Babesari buruzko otsailaren 21eko 1/1992 Lege Organikoan ezarritakoa haustearren, zehapen-espedienteak irekitzen dituzten Herrizaingo Saileko Segurtasun Sailburuordetzako ebazpenak jakinarazteko dena. 23114

## Xedapen Orokorrak

### INDUSTRIA, MERKATARITZA ETA TURISMO SAILA

5574

AGINDUA, 2007ko irailaren 21ekoa, Industria, Merkataritza eta Turismo sailburuarena, kontsumoaren arloan prestatzeko eta ikertzeko beken programa arautzen duena.

Industria, Merkataritza eta Turismo sailburuak 2006ko irailaren 4an emandako Aginduaz, kontsumoaren arloan prestatzeko eta ikertzeko beken programa arautu zen (2005eko apirilaren 27ko EHAA, 79. zenbakia), eta, bere xedeari jarraituz, beka-programa arautu zuen kontsumoaren arloan jendea prestatzeko eta ikerketak egiteko.

Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Estatutuaren 6/2003 Legean heziketa eta prestakuntza jasotzeko eskubidea aitortzen da. Eta eskubide horretaz baliatzeko aukera are eragingarriago izango da, jadanik gaikuntza profesional egokia dutenei kontsumoaren arloan prestatzeko aukerak emanez gero, era horretara, gerora, ikasitakoa hiritarren zerbitzura jar dezaten, bai enpresaren bidez, bai Administrazio publikoen bidez, bai kontsumitzaile-erabiltzaileen elkarleen bidez.

Kontsumoaren arloa hainbat diziplinaren ikergaia da, eta Administrazio publikoari dagokio kontsumitzailearen eta erabiltzailearen eskubideak babestea. Horrenbestez, egoki jo dugu hainbat tituluduni aukera ematea, presta daitezten eta Industria, Merkataritza eta Turismo Sailak Kontsumo eta Industria Segurtasuneko Zuzendaritzaren bidez kontsumitzaileak eta erabiltzaileak babesteko aurrera eramaten duen politikari lagun diezaioaten.

EDICTO de 5 de septiembre de 2007, del Director de Trabajo y Seguridad Social, por el que se notifica a la empresa «Gikautxo, S.L.» la Resolución recaída en el expediente n.º 07.0082.20.01.01.02. 23111

## DEPARTAMENTO DE INTERIOR

ANUNCIO por el que se notifican las Resoluciones del Director de la Ertzaintza de los expedientes que abajo se indican, incoados con relación a infracciones de la Ley Orgánica 1/1992, de 21 de febrero, sobre Protección de la Seguridad Ciudadana. 23112

ANUNCIO por el que se notifican las Resoluciones de la Viceconsejería de Seguridad del Departamento de Interior incoatorias de los expedientes sancionadores abajo indicados, con relación a infracciones de la Ley Orgánica 1/1992, de 21 de febrero, sobre Protección de la Seguridad Ciudadana. 23114

## Disposiciones Generales

### DEPARTAMENTO DE INDUSTRIA, COMERCIO Y TURISMO

5574

ORDEN de 21 de septiembre de 2007, de la Consejera de Industria, Comercio y Turismo, por la que se regula el programa de becas para la formación e investigación en materia de consumo.

La Orden de 4 de septiembre del 2006, de la Consejera de Industria, Comercio y Turismo, por la que se regula el programa de becas para la formación e investigación en materia de consumo, publicada en el BOPV n.º 79 de 27 de abril de 2005, estableció la regulación del programa de becas para la formación e investigación en materia de consumo.

El derecho a la educación y a la formación legalmente reconocido en la Ley 6/2003 de Estatuto de las Personas Consumidoras y Usuarías será susceptible de un ejercicio más eficaz en la medida en la que se ofrezcan posibilidades de formación a quienes cuentan ya con una adecuada cualificación profesional, con el fin de que puedan adquirir una especialización en el campo del consumo que posteriormente se ponga al servicio de la ciudadanía a través de la empresa, las administraciones públicas o las propias asociaciones de personas consumidoras y usuarias.

Siendo el campo del consumo una materia de carácter pluridisciplinar y correspondiéndole a la Administración Pública la defensa de los derechos de la persona consumidora y usuaria, se ha juzgado conveniente ofrecer a diferentes titulados la oportunidad de formarse y colaborar con la política de protección de las personas consumidoras y usuarias llevada a cabo por el Departamento de Industria, Comercio y Turismo a través de la Dirección de Consumo y Seguridad Industrial.

Aipatutako agindu hori indarrean jarri zenetik hona, argi ikusi da orain indarrik gabe utzi behar dela, eta beste bat argitaratu idazkera berri batekin, puntu batzuk aldatu, kendu edo sartuta, era horretara, bate-tik, kudeaketa zuzenagoa eta praktikoagoa izan dadin, eta, bestetik, laguntza jasotzen dutenentzat ahalik eta onuragarrien izan dadin laguntza hori.

Hori dela eta, honakoa

XEDATU DUT:

I. KAPITULUA  
XEDAPEN OROKORRAK

*1. artikulua.*— Xedea.

Kontsumoaren arloan jendea prestatzeko eta ikerketak egiteko beken programa arautzea da agindu honen xedea.

Programa honetan emandako laguntzak, itzultze-koak ez diren diru-laguntzat hartuko dira, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren kontura emandako diru-laguntzei buruz indarrean diren arauen menpe izango dira.

Era berean, agindu honetan ezarritako diru-laguntzak lehiaketa-prozedura erabilita ebatziko dira.

*2. artikulua.*— Baliabide ekonomikoak.

Aurreko artikuluan adierazitako helburura zuzendutako ekonomia-baliabideek sorburu hau izango dute: Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorretan horretarako ezarritako aurrekontu-kredituak.

*3. artikulua.*— Beken edukia.

Laguntza-programa honek bi beka-mota izango ditu. Bakoitzak bere edukia izango du, kontsumitzaileak eta erabiltzaileak babesteko lanaren arloen arabera. Aipatu beka-motak honako hauek izango dira:

1. beka: Kontsumoaren arloko erreklamazioen azterketa juridikoa.

Beka-mota honek aukera emango dio esleipendunari honakoak ikertzeko: arlo juridikoan, Kontsumo eta Industria Segurtasuneko Zuzendaritzarekin kontsumitzaileen erreklamazioak. Zuzendaritza horrek, dokumentazio-zerbitzuaren bidez, materialak eta informazioa emango dizkio.

Aterabide juridiko egokienak eta jasotako erreklamazioak sistematizatzeko, erreklamazioen azterketa eta analisi juridikoa egitea da helburua.

2. beka: Kontsumoari buruzko informazioa tratatu eta zabaltzeko formaziorako beka.

Kontsumoko gaietan espezializatutako liburutegi baten informazioa tratatu eta zabaltzeko tekniketan formatzeko aukera emango dio esleipendunari beka honek. Hartarako, Kontsumo eta Industria Segurtasuneko Zu-

En el período de tiempo transcurrido desde su entrada en vigor se ha constatado la necesidad de derogar la citada Orden para corregir, eliminar o incluir determinados aspectos de cara a favorecer una gestión más correcta y más práctica, así como a subsanar aquellas cuestiones menos ventajosas para las personas beneficiarias de la misma, por lo que se ha optado por una nueva redacción.

En su virtud,

DISPONGO:

CAPÍTULO I  
DISPOSICIONES GENERALES

*Artículo 1.*— Objeto.

Es objeto de la presente Orden la regulación del programa de becas para la formación e investigación en materia de consumo.

Este programa de ayudas tendrá la consideración de subvenciones no reintegrables y estará sometido a la normativa vigente reguladora de las subvenciones con cargo a los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

Las ayudas establecidas en la presente Orden se resolverán mediante el procedimiento de concurso.

*Artículo 2.*— Recursos económicos.

Los recursos económicos destinados a la finalidad del artículo anterior procederán de los correspondientes créditos presupuestarios establecidos al efecto en los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

*Artículo 3.*— Contenido de las becas.

El presente programa de ayudas consistirá en dos tipos de becas con contenido diferente en función de los distintos ámbitos de la protección de las personas consumidoras y usuarias. Las dos tipos de becas citados son los siguientes:

Beca 1: beca para análisis jurídico de reclamaciones de consumo.

Este tipo de beca conferirá a la persona adjudicataria la posibilidad de investigar y sobre reclamaciones de las personas consumidoras en el ámbito jurídico en colaboración con la Dirección de Consumo y Seguridad Industrial. Ésta facilitará el acceso a materiales e información a través de su servicio de documentación.

Tiene como objetivo el análisis jurídico sobre las reclamaciones existentes y el estudio de las mismas para sistematizar las reclamaciones recibidas y las soluciones jurídicas más apropiadas.

Beca 2: beca para la formación en el tratamiento y difusión de información de consumo.

Este tipo de beca conferirá a la persona adjudicataria la posibilidad de formarse en las técnicas de tratamiento y difusión de la información en una biblioteca especializada (sobre temas de consumo). Para ello, la Di-

zendaritzak sarbidea erraztatuko dio bere funts dokumentaletara eta bai informazioa eta dokumentazioa kudeatzeko erabilitako informatika-aplikazioetara ere.

Kontsumo eta Industria Segurtasuneko Zuzendaritzak dituen baliabide dokumentalei buruzko informazioa sistematizatzea da bekaren helburua, informazio hori Internet-en bidez hedatzeko.

#### 4. artikulua.— Onuradunen betekizunak.

1.— Ondorengo betekizun hauek betetzen dituzten pertsona fisikoek jaso ahal izango dituzte beka hauek:

a) Bizilekua Euskal Autonomia Erkidegoan izan behar dute, gutxienez, eskabidea aurkeztu baino hamabi hilabete lehenagotik.

b) Industria, Merkataritza eta Turismo Sailak kontsumoaren arloan emandako bekarik lehenago jaso ez izana.

c) Izaera bereko diru-laguntzak edo laguntzak direla eta, itzultze edo zigortze espedienteren baten pean ez izatea; ez eta, diru-laguntza edo laguntza publikoak direla eta, arau-hausteren bategatik, zigor irmo gisa Euskadiko Aurrekontu Nagusien kontura diru-laguntzak jasotzeko debekuaren pean ere.

d) Laguntza edo diru-laguntza publikoak eskuratzeko aukera galduta, administrazio-zehapenik edo zehapen penalik ez izatea eta, halaber, inhabilitatzen duen ezein legezko debekurik izatearen gainekoa, horren barruan honakoak direla: Gizonen eta emakumeen arteko berdintasunari buruzko otsailaren 18ko 4/2005 Legea dela-eta, sexuaren inguruko diskriminazioa egiteagatik gertatutakoak.

e) Azken 5 urteotan lortutako titulu akademikoak.

Kontsumoaren arloko erreklamazioen azterketa juridikoa egiteko beka 1.

– Zuzenbideko lizentziatura,

Kontsumoari buruzko informazioa tratatu eta zabaltzeko formaziorako 2 beka.

– Dokumentazioa/bibliotekonomian lizentziatura.

– Dokumentazioa/bibliotekonomian diplomatura.

Azterrian lortutako tituluak eta publikoak ez diren Espainiako ikastetxeetan lortutako tituluak ere onartuko dira, baldin, eskabidea aurkezteko unean, dagokion homologazioa —edo antzekoa— badute.

## II. KAPITULUA LAGUNTZEN EZAUGARRIAK

### 5. artikulua.— Laguntzen iraupena eta zenbatekoak.

Beka bakoitzak gehienez hamabi hilabete iraungo du. Industria, Merkataritza eta Turismo Sailak beka bakoitza zein diru-kopuruz hornituko duen, 8. artikuluan adierazitako urteroko deialdian zehaztuko da. Zenbatekoa zuzenean onuradunari ordainduko zaio.

6. artikulua.— Diruz lagundu daitezkeen beste gastu batzuk.

rección de Consumo y Seguridad Industrial facilitará el acceso a todos sus fondos documentales y a las aplicaciones informáticas utilizadas para la gestión de la documentación y la información.

La beca tiene como objetivo la sistematización de la información sobre los recursos documentales con que cuenta la Dirección de Consumo y Seguridad Industrial, de cara a su difusión a través de Internet.

#### Artículo 4.— Requisitos de las personas beneficiarias.

1.— Podrán acceder a las presentes becas las personas físicas que reúnan los requisitos siguientes:

a) Residencia en la Comunidad Autónoma de Euskadi con antigüedad superior a doce meses, en el momento de la presentación de la solicitud.

b) No haber disfrutado anteriormente de beca alguna de las convocadas por el Departamento de Industria, Comercio y Turismo en el ámbito del consumo.

c) No hallarse incurso en procedimiento alguno de reintegro o sancionador iniciado en el marco de subvenciones o ayudas de la misma naturaleza ni en prohibición de obtención de subvenciones con cargo a los Presupuestos Generales de Euskadi como sanción firme impuesta por infracción en materia de subvención o ayudas públicas.

d) No hallarse sancionadas penal ni administrativamente con la pérdida de la posibilidad de obtención de subvenciones o ayudas públicas, ni estar incusas en prohibición legal alguna que las inhabilite para ello, con inclusión de las que se hayan producido por incurrir en discriminación por razón de sexo, en virtud de la Ley 4/2005, de 18 de febrero, de Igualdad de Mujeres y Hombres.

e) Titulación académica obtenida en los últimos 5 años:

Beca 1 para análisis jurídica de reclamaciones de consumo:

– Licenciatura en Derecho.

Beca 2 Beca para la formación en el tratamiento y difusión de información de consumo:

– Licenciatura en Documentación/ Biblioteconomía.

– Diplomatura en Documentación/ Biblioteconomía.

Se admitirán los títulos obtenidos en el extranjero o en centros españoles no públicos que cuenten con la pertinente homologación, o equivalente, en el momento de presentar la solicitud.

## CAPÍTULO II CARACTERÍSTICAS DE LAS AYUDAS

### Artículo 5.— Duración y cuantía de las ayudas.

La beca tendrá una duración máxima de doce meses. El Departamento de Industria, Comercio y Turismo dotará cada beca, con una cuantía que se determinará en la convocatoria anual a la que se hace referencia en el artículo 8 y será directamente pagada a la persona beneficiaria.

### Artículo 6.— Otros gastos subvencionados.

1.— Aurreko artikuluan adierazitako hornidura ekonomiko finkoaz gain, 8. artikuluan aipatutako urteroko deialdian, gehienezko zenbateko bat zehaztuko da, beka bakoitzeko bekadunen gastuak ordaintzeko, hala nola, joan—etorriak, mantenua, estatua eta matrikula.

2.— Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Nagusiak bekadunak babesteko istripu eta erantzukizun zibileko aseguru-poliza bat izenpetuko du.

#### 7. artikulua.— Bateriaezintasunak.

Beka hau jasoz gero, erakundeetatik ezin izango da bestelako laguntzarik jaso jarduera berbera edo antzeko bat egiteagatik, eta ezin izango da ordaindutako bestelako lanik ere egin.

### III. KAPITULUA PROZEDURA

#### 8. artikulua.— Prozedura hastea.

Agindu honen bidez arautzen diren beketarako, kontsumoaren arloan prestatzeko eta ikertzeko beketarako, deialdi publikoa egingo da urtero. Bekak ematean, oinarri hauek erabiliko dira: publizitatea, lehia eta objektibotasuna.

Merkataritza, Kontsumo eta Industria Segurtasuneko sailburuordeak ebazpen bidez egingo du deialdia. Deialdian, ezaugarri hauek zehaztuko dira: eskaerak aurkezteko lekua eta epea, eskaera-ereduak jasotzeko tokiak, deialdiko gehienezko beka-kopurua, bekak emateko beharrezko den diru-kopuru osoa; era berean, ondo zehaztuko da, batetik, bekak jasoko duen diru-kopuru osoa, eta, bestetik, agindu honen 6.1. artikuluan ezarritako gastuak estaltzeko beka bakoitzean gehienez emango den zenbatekoa.

9. artikulua.— Eskabideak eta agiri osagarriak aurkeztea.

1.— Eskabideak Eusko Jaurlaritzako Industria, Merkataritza eta Turismo Saileko Kontsumo eta Industria Segurtasuneko Zuzendaritzari zuzendu beharko zaizkio, eta urteroko deialdiaren ebazpenean adierazitako lekuetan aurkeztuko dira.

2.— Eskabidea aurkezteko epea urteko deialdiko ebazpenean ezarriko da. Argitaratzen denetik gutxienez hilabete batekoa izango da epe hori.

3.— Eskabidearekin batera, eskatzailearen datu pertsonalak aurkeztuko dira, eta antzeko bekaren baten onuradun ez dela izan dioen zinpeko adierazpena ere bai.

Eskabidearekin batera, agiri hauek ere aurkeztu beharko dira:

a) Nortasun agiri nazionalaren kopia.

b) Eskatzailearen espediente akademikoa. Azaldu beharreko datuak: ikasturte bakoitzean lortutako kalifikazioak, eta ikasketak noiz bukatu dituen. Atzerrian lortutako tituluak eta publikoak ez diren Espainiako ikastetxeetan lortutako tituluak direnean, espediente akademikoarekin batera, Espainiako Hezkuntza, Kul-

1.— Con independencia de la dotación fija económica señalada en la convocatoria anual a la que se refiere el artículo 8, se determinará en la misma un importe máximo por beca que se destinará a la cobertura de gastos derivados de la formación de los becarios, tales como traslado, manutención, alojamiento y matrícula.

2.— La Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi suscribirá una póliza de responsabilidad civil y accidentes a favor de las personas beneficiarias de las becas.

#### Artículo 7.— Incompatibilidades.

El disfrute de la beca se considera incompatible con la percepción de otra ayuda institucional por la realización de idéntica o similar actividad o con la realización de cualquier trabajo remunerado.

### CAPÍTULO III PROCEDIMIENTO

#### Artículo 8.— Iniciación del procedimiento.

Las becas para la formación e investigación en materia de consumo reguladas por la presente Orden serán objeto de convocatoria pública anual y se otorgarán bajo los principios de publicidad, concurrencia y objetividad.

La convocatoria se realizará por Resolución del Viceconsejero de Comercio, Consumo y Seguridad Industrial y en la misma se precisará el lugar y plazo de presentación de las solicitudes, así como los lugares donde se facilite un modelo de solicitud, el número máximo de becas de la convocatoria y el importe de la dotación necesaria para cubrirlas, desglosando la cuantía global de la beca y el importe máximo por beca para cubrir los gastos previstos en el artículo 6.1 de la presente Orden.

Artículo 9.— Presentación de solicitudes y documentación complementaria.

1.— Las solicitudes se dirigirán a la Dirección de Consumo y Seguridad Industrial del Departamento de Industria, Comercio y Turismo del Gobierno Vasco y se presentarán en los lugares especificados en la Resolución de convocatoria anual.

2.— El plazo de presentación de las solicitudes, que en ningún caso será inferior a un mes desde su publicación, se fijará en la resolución de la convocatoria anual.

3.— La solicitud deberá contener los datos personales de la persona solicitante y declaración jurada de no haber sido beneficiaria de becas similares.

A la mencionada solicitud se acompañará la documentación siguiente:

a) Copia del DNI.

b) Certificado del expediente académico de la persona aspirante, con las calificaciones de todos los cursos y en el que conste la fecha de finalización de sus estudios. Los expedientes académicos de estudios realizados en el extranjero o en centros españoles no públicos deberán ir acompañados de la fotocopia de la homolo-

tura eta Kirol Ministerioak onartutako homologazioaren fotokopia aurkeztu behar da.

c) Curriculum vitae. Honako datu hauek jaso behar ditu: lanbide-esperientzia, prestakuntza, hizkuntzeta-ko jakintzak, interesgarritzat jotzen diren meritu guztiak, eta deialdiko xedearekin zerikusia duten lanak eta esperientziak.

d) Curriculum vitaean adierazitako merituak egiaztatzeko agiriak. Ez dira balioetsiko eskabidea aurkezteko unean agiri bidez frogatu ez diren ikastaroak edo esperientzia.

e) Euskal Autonomia Erkidegoan errolatuta dagoela egiaztatzeko ziurtagiria. Gutxienez hamabi hilabete baino lehenagotik ohiko bizilekua erkidego honetan duela adierazi behar du.

f) 4. artikuluko 1.c eta 1.d. idatz-zatietan aipatzen diren egoerek ez diotela eragiten dioen zinpeko aitorpena.

Dokumentazioaren jatorrizko agiriak edo behar bezala konpultsatutako fotokopiak aurkeztu behar dira.

4.– Eskabideak erabat osatuta ez baldin badatoz edo eskatutako agiriak ez badakartzate, eskatzaileari bi ohar hauek egingo zaizkio: batetik, 10 eguneko epea duela hutsa zuzentzeko edo beharrezko agiriak aurkezteko. Eta, bestetik, horrela egin ezik, azaroaren 26ko 30/1992 Legeko (Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legea) 71.1 artikuluan ezarritakoari jarraituz, eskabideari uko egin diola ulertuko dela.

5.– Kanpoan uzteko arrazoï izango dira:

a) Eskakizuna, Merkataritza, Kontsumo eta Industria Segurtasuneko sailburuordeak urtero egin beharreko deialdian ezarritako epetik kanpora aurkeztea.

b) Agindu honetan adierazitako betekizunak ez betetzea.

**10. artikulua.**– Hautaketa batzordea.

1.– Hautaketa batzorde batek balioztatuko ditu aurkeztutako eskabideak; eta, gero, erabakitzeke ahalmena duen organoari proposamen bat aurkeztuko dio. Hona hemen hautaketa-batzorde horretako kideak:

– Kontsumo eta Industria Segurtasuneko zuzendaria, edo hark izendatutako pertsona. Batzordeko buru izango da, eta, bere botoarekin, berdinketak ebatziko ditu.

– Kontsumo eta Industria Segurtasuneko Zuzendaritzako Azterketa eta Plangintzako teknikaria. Batzordekide izango da.

– Kontsumo eta Industria Segurtasuneko Zuzendaritzako Dokumentazioko teknikaria. Batzordekide izango da.

– Kontsumo eta Industria Segurtasuneko Zuzendaritzako Informazioko teknikaria: idazkaria zango da, hitz egiteko eta botoa emateko eskubidearekin.

gación concedida por el Ministerio de Educación, Cultura y Deporte español.

c) Curriculum vitae. En él se harán constar la experiencia profesional, la formación, el conocimiento de idiomas y cuantos méritos se consideren de interés, así como los trabajos y experiencias previas realizados en relación con el objeto de la convocatoria.

d) Documentos acreditativos de los méritos que se alegan en el curriculum vitae. No se valorarán los cursos o experiencia que no estén justificados documentalmente en el momento de la presentación de la solicitud.

e) Certificado de empadronamiento, en el que se deberá acreditar la residencia habitual en la Comunidad Autónoma de Euskadi con antigüedad superior a doce meses.

f) Declaración jurada de no hallarse en ninguna de las situaciones a las que se hace referencia en el artículo 4 en los puntos 1c y 1d.

Deberá presentarse original de la documentación o fotocopia debidamente compulsada.

4.– Si las solicitudes no vinieran cumplimentadas en todos sus términos o no fueran acompañadas de la documentación exigida, se requerirá a la persona interesada para que, en un plazo de diez días, subsane la falta o acompañe los documentos preceptivos, con indicación de que si así no lo hiciera, se le tendrá por desistida de su petición, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 71.1 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, sobre Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

5.– Serán causas de exclusión:

a) La presentación de solicitudes fuera del plazo establecido a tal efecto en la convocatoria anual a realizar por el Viceconsejero de Comercio, Consumo y Seguridad Industrial.

b) El no cumplimiento de los requisitos señalados en la presente Orden.

**Artículo 10.**– Comité de selección.

1.– Un Comité de selección valorará las solicitudes presentadas y elevará propuesta al órgano competente para resolver. El Comité de selección estará compuesto por las personas que a continuación se designan:

– El Director de Consumo y Seguridad Industrial, o persona en quien delegue, que ostentará la Presidencia del Comité y dirimirá con su voto los empates.

– La Técnica de Estudios y Planificación de la Dirección de Consumo y Seguridad Industrial, como vocal.

– La Técnica de Documentación de la Dirección de Consumo y Seguridad Industrial, como vocal.

– La Técnica de Información de la Dirección de Consumo y Seguridad Industrial, como Secretaria con voz y voto.

2.– Hautaketa Batzordeak bere erabakiak hartzeko aginpide osoa izango du. Bozketa bidez hartuko ditu erabakiak. Hautaketa Batzordeak gehiengoz hartu beharko ditu erabakiak. Artikulu honetan arautu gabekoari dagokionez, 30/1992 Legearen (Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legea, azaroaren 26koa) II. tituluko II. kapituluaren ezarritakoa aplikatuko da.

### 11. artikulua.– Hautatzeko irizpideak.

1.– Hautaketa Batzordeak bi fasetan balioztatuko ditu eskabideak. Lehenengoan, aurkeztutako agiriak balioztatuko ditu; bigarrenan, elkarrizketa pertsonala egingo du.

#### a) 1. Fasea:

1. beka-mota: kontsumoko irakaskuntzan erabiltzeko materialak prestatu eta hedatzeko beketarako eskabideak, ondorengo baremo honi jarraituz balioztatuko dira:

- Expediente akademikoa .....30 puntu.
- Curriculum vitae .....35 puntu.
- Euskara .....25 puntu.
- (hizkuntza-eskakizunak edo baliokideak)
- Hizkuntzak (ingelese, frantsesa edo alemanera).....10 puntu.
- (Hizkuntza-eskola ofizialean oinarritzko zikloa, lau garren maila edo goi-zikloa gainduta izatea).

2. beka-mota: kontsumitzailearentzako argibide materialak prestatu eta hedatzeko beketarako eskabideak, ondorengo baremo honi jarraituz balioztatuko dira:

- Expediente akademikoa .....30 puntu.
- Curriculum vitae .....35 puntu.
- Euskara .....25 puntu.
- (hizkuntza-eskakizunak edo baliokideak)
- Hizkuntzak (ingelese, frantsesa edo alemanera).....10 puntu.
- (Hizkuntza-eskola ofizialean oinarritzko zikloa, lau garren maila edo goi-zikloa gainduta izatea).

#### b) 2. Fasea: hautatzeko elkarrizketa.

Lehen fasean 50 puntu erdietsi dituzten izangaiak bakarrik pasatuko dira fase honetara.

Batzordeak hainbat galdera egingo du azaldutakoari buruz, edo bekaren xedearekin eta partaidearen (edo partaideen) ezaugarri profesionalekin eta lan-ahalmenekin lotutako beste alderdi batzuei buruz.

Hautaketa Batzordeak beka bakoitzerako lehenengo bost hautagaiak elkarrizketatuko ditu. Hala ere, Hautaketa Batzordeak, egoki baderitzo, elkarrizketatuen kopurua handitu dezake hurrenkera zehatzean, baldin eta lehenengo bost hautagai horietarikoren bat aurkeztean ez bada.

Elkarrizketak, gehienez ere, 100 puntuko balioa izango du.

2.– Hautaketa Batzordeak bekak esleituko zaizkien pertsonen zerrenda osatuko du. Orobat, bi ordezeko izen-

2.– El Comité de selección será soberano en la adopción de sus acuerdos, que se llevarán a cabo mediante el procedimiento de votación. Cualquier acuerdo del Comité de selección deberá ser tomado por mayoría. En lo no previsto en este artículo será de aplicación lo establecido en el Título II Capítulo II de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

### Artículo 11.– Criterios de selección.

1.– La valoración de las solicitudes que realizará el Comité de selección se realizará en dos fases, una primera en la que se valorará la documentación presentada y una segunda en la que se realizará una entrevista personal.

#### a) Fase 1:

Las solicitudes para acceder a la beca 1 para la elaboración y difusión de material didáctico de consumo serán valoradas según el siguiente baremo:

- Expediente académico.....30 puntos.
- Curriculum vitae .....35 puntos.
- Euskara .....25 puntos.
- (Perfiles lingüísticos o equivalentes)
- Idiomas (inglés, francés y alemán).....10 puntos.
- (Haber superado el ciclo elemental, el cuarto curso o el ciclo superior de la Escuela Oficial de Idiomas).

Las solicitudes para acceder a la beca 2 para la formación en el tratamiento y suministro de información de consumo y elaboración de materiales informativos para la persona consumidora serán valoradas según el siguiente baremo:

- Expediente académico.....30 puntos.
- Curriculum vitae .....35 puntos.
- Euskara .....25 puntos.
- (Perfiles lingüísticos o equivalentes)
- Idiomas (inglés, francés y alemán).....10 puntos.
- (Haber superado el ciclo elemental, el cuarto curso o el ciclo superior de la Escuela Oficial de Idiomas).

#### b) Fase 2: entrevista de selección.

Sólo pasarán a esta fase aquellos aspirantes que hayan obtenido 50 puntos en la primera fase.

El Comité de selección podrá formular preguntas sobre lo expuesto o sobre otros aspectos relacionados con el objeto de la beca, con el perfil profesional y con las posibilidades de trabajo de la persona implicada.

El Comité de selección entrevistará a las cinco primeras candidaturas para cada una de las becas. No obstante, el número de candidaturas a entrevistar podrá ser ampliado por orden riguroso en caso de que alguna de las 5 primeras candidaturas no acuda a la entrevista.

La entrevista tendrá un valor máximo de 100 puntos.

2.– El Comité de selección elaborará una lista con las personas adjudicatarias de las becas. Asimismo, de-

datuko ditu beka bakoitzerako, bekari uko egitea edo bekarako eskubidea galtzea gertatzen bada ere. Onuradunetakoren batek bekari uko eginez gero, ordezkotako lehenengoa izendatu ahal izango da onuradun, dagokion beka-motaren zerrendari begiratuta, betiere, agindu honen 16. artikuluan ezarritakoak aintzat hartuta.

3.— Hautaketa Batzordeak beka-motaren bat eman gabe utz dezake, baldin eta horretarako eskabiderik ez badago, edo hautagaiek balorazio osoaren % 50 gainditzen ez badute dagokion beka-motan. Horrelakorik gertatuz gero, beste beka-motaren batean onuradun gehiago izatea erabaki dezake Hautaketa Batzordeak, eta, horretarako, bekadun-gai proposatuko du, beka-mota bietako ordezkoen artean, eskabideak balioztatutakoan puntuaziorik handiena izan duen ordezkoa.

#### 12. artikulua.— Ebazpena.

1.— Hautaketa Batzordeak egindako proposamena ikusirik, Kontsumo eta Industria Segurtasuneko zuzendariak laguntzak emateko ebazpena emango du, eta hautagai bakoitzari jakinaraziko zaio. Horretarako, sei hilabeteko epea izango du, urteko laguntza-deialdia argitaratu eta biharamunetik hasita. Ebazpenean, ordezkotako hautagaiak ere izendatuko ditu.

2.— Aurreko puntuan adierazitako jakinarazpenaz gainera, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian ere argitaratuko da ebazpena, guztiek laguntza horien berri izan dezaten.

3.— Ebazpen horrek ez du administrazio-bidea amaituko, eta bere aurka, gora jotzeko errekurtoa aurkez dakioke Merkataritza, Kontsumo eta Industria Segurtasuneko sailburuordeari. Errekurtoa aurkezteko, hilabeteko epea izango da, jakinarazpena jasotzen denetik hasita.

4.— Bekak emateko kontuan hartu diren baldintzetan edozein aldaketa gertatuz gero, beka emateko ebazpena alda daiteke, baldin eta arau honetako beken onuradun izateko ezarri diren gutxieneko betekizunak betetzen badira.

5.— Bekak esleitu eta jaso arren, ez da inolako hitzarmen- edo estatutu-harremanik sortuko bekadunaren eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren artean.

6.— Urteko deialdia argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita, sei hilabete igaro, eta ebazpenik eman eta jakinarazi ez bada, interesdunak ez onartutzat jo ahal izango du bere eskabidea. Dena dela, aginpidedun organoak, eskatutako laguntzari buruz, berariazko ebazpena emateko betebeharra du.

#### 13. artikulua.— Beka ordaintzea.

1.— Bekak ordaintzeko ebazpena emateko aginpidea Kontsumo eta Industria Segurtasuneko zuzendariak izango du. Bekak hilero ordainduko dira, hilabete bakoitza bukatutakoan.

2.— 6.1 artikuluan aipatutako gastuei dagokienez, horien zenbatekoa ordaintzeko ezinbestekoa izango da aurretik Kontsumo eta Industria Segurtasuneko Zuzendaritzak gasturako baimena ematea eta onuradun bakoitzak gastu horiek behar bezala frogatzea, gastua egiten

signará tres suplentes por cada una de las becas para los casos de renuncia u otra causa de pérdida de derecho a la beca. En caso de renuncia de una de las personas beneficiarias, se podrá nombrar beneficiaria al primero de las suplentes del tipo de beca que corresponda en los términos establecidos en el artículo 16 de esta Orden.

3.— El Comité de Selección declarará desierta un tipo de beca cuando no haya solicitudes y cuando las personas aspirantes no superen el 50% de la valoración total de la beca. En este supuesto, el Comité de Selección podrá acordar incrementar el número de personas beneficiarias de otro tipo de beca para lo cual propondrá como aspirante a quien, de entre los suplentes de los dos tipos de beca, haya obtenido mayor puntuación en el proceso de valoración de las solicitudes.

#### Artículo 12.— Resolución.

1.— A la vista de la propuesta realizada por el Comité de selección, el Director de Consumo y Seguridad Industrial en el plazo máximo de seis meses a contar desde el día siguiente al de la publicación de la convocatoria anual de las ayudas dictará y notificará individualmente a las personas aspirantes la resolución de concesión de las ayudas y la designación de suplentes.

2.— Sin perjuicio de lo anterior y para general conocimiento de las ayudas concedidas se procederá a su publicación en el Boletín Oficial de Euskadi.

3.— La citada resolución no agotará la vía administrativa y podrá interponerse contra la misma recurso de alzada ante el Viceconsejero de Comercio, Consumo y Seguridad Industrial, en el plazo de un mes contado a partir de la recepción de la notificación.

4.— Toda alteración de las condiciones tenidas en cuenta para la concesión de las becas podrá dar lugar a la modificación de la resolución de concesión, siempre que se salvaguarden los requisitos mínimos establecidos en la presente norma para ser persona beneficiaria de estas becas.

5.— La concesión y disfrute de las becas no establecerá relación contractual o estatutaria alguna entre el becario y la Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

6.— Transcurridos seis meses, a contar desde el día siguiente al de la publicación de la correspondiente convocatoria anual sin que se haya dictado y notificado resolución alguna, el interesado podrá entender desestimada su pretensión, sin perjuicio de la obligación del órgano competente de dictar resolución expresa en relación con la ayuda solicitada.

#### Artículo 13.— Abono de la beca.

1.— El órgano competente para dictar la resolución de abono de las becas será el Director de Consumo y Seguridad Industrial. El abono de dichas becas se realizará en pagos mensuales a mes vencido.

2.— En cuanto a los gastos a los que se hace referencia en el artículo 6.1, su importe se hará efectivo previa autorización de la Dirección de Consumo y Seguridad Industrial y justificación suficiente de los mismos por el beneficiario que los ha originado en el plazo má-

denetik, gehienez, bi hilabeteke epean, harik eta funtsa bukatzen den arte. Betiere, diruz lagundutako gastuak ezin izango dira otsailaren 2ko 16/1993 Dekretuan ezarritako zenbatekoak baino handiagoak, dekretu horrek arautzen baititu zerbitzuagatiko kalte-ordainak. Kontsumo eta Industria Segurtasuneko Zuzendaritzak alde zuzenetik ordaintzeko baimena ere eman dezake, aipaturikotako dekretu horretan ezarritako kasu jakinetan.

#### **14. artikulua.**— Enpresa onuradunen betebeharrak.

Betebehar hauek dituzte laguntzen onuradunek:

Emandako diru-laguntza onartu beharko dute. Horrela, laguntzak emateko ebazpena jakinarazteko agiria jasotzen duenetik hamar egun igarotzean, onuradunek berariaz eta idatziz bekari uko egin ez badiote, beka onartu dutela ulertuko da. Beka onartzeak agindu honetan jasotako arauak ere onartzea dakar.

Laguntza zertarako eman den, xede horretarakoxe erabiltzea.

Laguntzen zertarakoa fiskalizatzeko dituzten zereginak aurrera eramanez, Kontrol Ekonomikoko Bulegoak eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiak eskatzen dieten informazio oro ematea.

Kontsumo eta Industria Segurtasuneko Zuzendaritzarekin bilerak egitea, edukiarekin zerikusia duten alderdiak, jarraitu beharreko metodoa eta prestakuntza-eta ikerketa-lanak egitearekin zerikusia duten gaineko alderdiak aztertzea.

— Hilero, lanen egoerari buruzko txostena aurkeztea.

— Beka burututakoan, egindako material didaktikoak, argibide-materialak eta azterlanak aurkeztu behar dira.

— Agindu honetan finkatutako arauak betetzea.

— Jasotako diru publikoen erabilera justifikatzeari buruzko arauak betetzea.

— Helburu berdinarekin edo antzekoarekin beste edozein Administrazio edo erakunde publiko nahiz pribatutatik laguntzak, diru-sarrerak edo baliabideak jasoz gero, edo jasotzeko eskaria eginez gero, Industria, Merkataritza eta Turismo Sailari jakinaraztea.

— Agindu honetako 6. artikuluan araututako kasuetan, sortutako gastuen azalpen xehatua eta jatorrizko egiaztatutako aurkeztea.

#### **15. artikulua.**— Kontrola eta segimendua.

Eusko Jaurlaritzako Industria, Merkataritza eta Turismo Saileko Kontsumo eta Industria Segurtasuneko Zuzendaritzak egingo du bekadunek aurrera eraman beharreko jardueren kontrola eta segimendua.

Bekak nola doazen ikusteko egokitutako jotzen dituen egiaztapen guztiak egin ahal izango ditu Kontsumo eta Industria Segurtasuneko Zuzendaritzak. Eta onuradunek eskatzen zaizkien argibide osagarri guztiak eman beharko dituzte.

ximo de dos meses desde su devengo y hasta que se agote dicho fondo. Los gastos subvencionados nunca excederán de las cuantías establecidas en el Decreto 16/1993, de 2 de febrero, que regula las indemnizaciones por razón de servicio. La Dirección de Consumo y Seguridad Industrial podrá autorizar el pago anticipado en los supuestos contemplados en el mencionado Decreto.

#### **Artículo 14.**— Obligaciones de las personas beneficiarias.

Las personas beneficiarias de las ayudas quedan obligadas a:

Aceptar la subvención concedida. En este sentido, si en el plazo de diez días tras la fecha de recepción de la notificación de la resolución de concesión de ayudas las personas beneficiarias no renuncian expresamente y por escrito a la misma, se entenderá que ésta queda aceptada. La aceptación de la beca implicará la de las normas citadas en esta Orden.

Utilizar la ayuda para el concreto destino para el que haya sido concedida.

Facilitar cuanta información le sea requerida por la Oficina de Control Económico y el Tribunal Vasco de Cuentas Públicas, en el ejercicio de sus funciones de fiscalización del destino de las ayudas.

Mantener reuniones con la Dirección de Consumo y Seguridad Industrial para el análisis de aspectos relacionados con el contenido, método a seguir en su desarrollo y demás cuestiones relacionadas con la ejecución de los trabajos de formación e investigación.

— Presentar memorias mensuales del estado de los trabajos.

— A la finalización de la beca deberán presentarse los materiales didácticos, informativos y estudios realizados.

— Cumplir las normas fijadas en la presente Orden.

— Cumplir la normativa para la justificación del uso de los fondos públicos recibidos.

— Comunicar al Departamento de Industria, Comercio y Turismo la solicitud u obtención de subvenciones o ayudas, ingresos o recursos para la misma o similar finalidad, procedente de cualquier otra administración o ente tanto público como privado.

— Remitir explicación detallada y comprobantes originales de los gastos incurridos en los casos contemplados en el artículo 6 de la presente Orden.

#### **Artículo 15.**— Control y seguimiento.

El control y seguimiento de las actividades a desarrollar por las personas becarias se adscribe a la Dirección de Consumo y Seguridad Industrial del Departamento de Industria, Comercio y Turismo del Gobierno Vasco.

La Dirección de Consumo y Seguridad Industrial podrá realizar las comprobaciones que estime oportunas en relación con el desarrollo de las becas. Las personas beneficiarias aportarán cuanta información complementaria les sea solicitada.

**16. artikulua.**— Uko egitea.

Bekaren onuradun den norbaitek bekari uko eginez gero, sortu ez diren eskubide ekonomiko guztiak galduko ditu.

Bekadunetakoren batek bekaldiari uko eginez gero, Kontsumo eta Industria Segurtasuneko Zuzendaritzak, dagokion beka-mota oinarri hartuta, ordezkotako lehenengoa izendatu dezake bekadun, bekaldi hori bukatzeko geratzen den aldirako eta diru-kopururako.

**17. artikulua.**— Ez betetzeak.

Gerta daiteke onuradunak ez betetzea beka emateko ebazpenean, agindu honetan edo aplikagarri diren beste arauetan ezarritako baldintzaren bat. Ebazteko aginpidea duen organoak, halakoetan, bekadunak jasotzeke duen kopurua jasotzeko eskubidea galdua duela adieraziko du, eta jasotakoa (dagozkion legezeko interesekin batera) Euskal Autonomia Erkidegoko Diruzaintza Nagusiari itzultzeko betebeharra duela. Gainera, egoki diren gainerako ekintzak ere egingo dira, legetestu hauetan xedatutakoari jarraituz: azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuan (Euskal Autonomia Erkidegoko Herri Ogasun Nagusiaren Antola Arauei buruzko Legearen eraberritutako idazkera onartzen duena); eta abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuan (Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren kontura emandako diru-laguntzen berme eta itzulketetarako araubide orokorra ezartzen dituen, eta haien kudeaketan parte hartzen duten erakunde laguntzaileen betekizun, araubide eta betebeharrak zehazten dituen).

**XEDAPEN GEHIGARRIA**

30/1992 Legearen 45. artikuluan ezarritakoari jarraituz (Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legea, azaroaren 26koa), izapide telematikoko prozeduraren bat garatzen bada, eta dagokion araua argitaratzen bada, agindu honetan araututako laguntzak prozedura horren arabera izapidetu ahal izango dira.

**XEDAPEN IRAGANKORRA**

Agindu honen Xedapen Indargabetzailean ezarritakoak ezarrita ere, Industria, Merkataritza eta Turismo sailburuaren 2007ko irailaren 19ko Aginduaren babesean emandako bekak emateko (Agindu horrek kontsumoaren arloan jendea prestatzeko eta ikerketak egiteko beken programa arautu zuen), agindu horretan bertan ezarritakoa eta, horri lotuta, urteroko deialdia egiteko ebazpenean ezarritakoa hartuko dira oinarritzat.

**XEDAPEN INDARGABETZAILEA**

Honako agindu hau indarrean sartutakoan, baliorik gabe geratuko da Industria, Merkataritza eta Turismo sailburuak kontsumoaren arloan jendea prestatzeko eta

**Artículo 16.**— Renuncia.

La renuncia de la persona beneficiaria de la beca dará lugar a la pérdida de todos los derechos económicos no devengados.

En caso de que se produzcan renunciaciones, la Dirección de Consumo y Seguridad Industrial podrá nombrar como persona becaria a la primera de las suplentes del tipo de beca que corresponda, por el período y por la cuantía que reste del disfrute de la beca de que se trate.

**Artículo 17.**— Incumplimientos.

En el supuesto de que la persona beneficiaria de la subvención incumpliera cualquiera de las condiciones establecidas en la resolución de concesión, en la presente Orden y en las demás normas de aplicación, el órgano competente para resolver mediante la oportuna resolución declarará la pérdida del derecho a la percepción de las cantidades pendientes y la obligación de reintegrar a la Tesorería General del País Vasco las cantidades que hubiera percibido, así como los intereses legales que correspondan, sin perjuicio de las demás acciones que procedan, de conformidad con lo establecido en el Decreto Legislativo 1/1997, de 11 de noviembre, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley de Principios Ordenadores de la Hacienda General del País Vasco y en el Decreto 698/1991, de 17 de diciembre, por el que se regula el régimen general de garantías y reintegros de las subvenciones con cargo a los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma de Euskadi y se establecen los requisitos, régimen y obligaciones de las entidades colaboradoras que participan en su gestión.

**DISPOSICIÓN ADICIONAL**

En el supuesto de que se desarrolle un procedimiento de tramitación telemática, de conformidad con lo establecido en el artículo 45 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, una vez publicada la norma que lo regule, las ayudas contempladas en la presente Orden podrán tramitarse de acuerdo con el mismo.

**DISPOSICIÓN TRANSITORIA**

No obstante lo dispuesto en la Disposición Derogatoria de la presente Orden, las becas concedidas al amparo de la Orden de 19 de septiembre de 2007 de la Consejera de Industria, Comercio y Turismo, por la que se regula el programa de becas para la formación e investigación en materia de consumo, se registrarán por lo establecido en la misma, así como por lo establecido en la Resolución de la convocatoria anual al amparo de la cual fueron concedidas.

**DISPOSICIÓN DEROGATORIA**

A la entrada en vigor de la presente Orden quedará derogada la Orden de 4 de septiembre de 2006, de la Consejera de Industria, Comercio y Turismo, por la que

ikerketak egiteko beken programa arautzeko 2006ko irailaren 4an emandako Agindua.

#### AZKEN XEDAPENAK

**Lehenengoa.**— Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean sartuko da indarrean Agindu hau.

**Bigarrena.**— Agindu honen aurka, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango da, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietako Salaren aurrean. Horretarako, bi hilabeteko epea izango da, Agindu hau argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2007ko irailaren 21a.

Industria, Merkataritza eta Turismo sailburua,  
ANA AGUIRRE ZURUTUZA.

#### EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA

##### 5575

EBAZPENA, 2007ko irailaren 18koa, Euskal Herriko Unibertsitateko idazkari nagusiarena, UPV/EHUKo Gobernu Kontseiluak 2007ko uztailaren 19an hartutako erabakia Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzeko agindua emateko dena. Erabaki horren bidez UPV/EHUKo Ikastegiaren Oinarriko Arautegia aldatu da batetik, Unibertsitatearen Lege Organikoaren erreformarako 4/2007 Legea egokitzeke, eta, bestetik, dekanorde edo zuzendariorde bat gehiago emateko xedez arautegiko eranskina aldatzeko.

Arautegi honek indarrean orain arte iragan dituen ia bi urteetan zehar, biziki areagotu da UPV/EHUKo ikastegiaren jarduna, akademi eta gestio-bikaintasunaren erdiesteko, eta, honen haritik, lan-zama eta inplikazio handiagoa eragin die dekanotza eta zuzendaritza-taldeei. Jardueraren gehitze hau konpentsatu beharra dago dekanordetza eta zuzendariordetzak emateko parametroak aldatuz, bai eta emate honetarako gehieneko mugak ere.

Beste alde batetik, egokia dirudi aldaketa hau aprobetxatuz alde teknikoan ere egokitzapen bat burutzeak. Izan ere, apirilaren 12ko 4/2007 Lege Organikoaren bidez aldatu egin zen Unibertsitatearen Lege Organikoa, eta, ondorioz, unibertsitatearen indarrean dagoen arautegian ere aldaketak egin behar dira, batez ere kide anitzeko organoen osakeran eta kide bakarreko organoa osatzeko bete beharreko baldintzetan.

se regula el programa de becas para la formación e investigación en materia de consumo.

#### DISPOSICIONES FINALES

**Primera.**— La presente Orden entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

**Segunda.**— Contra la presente Orden podrá interponerse recurso contencioso-administrativo ante la Sala de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco en el plazo de dos meses a contar desde el día siguiente al de publicación de la presente Orden.

En Vitoria-Gasteiz, a 21 de septiembre de 2007.

La Consejera de industria, Comercio y Turismo,  
ANA AGUIRRE ZURUTUZA.

#### UNIVERSIDAD DEL PAÍS VASCO

##### 5575

RESOLUCIÓN de 18 de septiembre de 2007, del Secretario General de la Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea, por la que se ordena la publicación en el Boletín Oficial del País Vasco del Acuerdo del Consejo de Gobierno de la UPV/EHU, en su sesión de 19 de julio de 2007, por el que se modifica el anexo para la concesión de un vicedecanato o subdirección adicional y se adecuan las disposiciones del Reglamento Marco de Centros de la UPV/EHU a la Ley 4/2007, de Reforma de la Ley Orgánica de Universidades.

Durante los casi dos años de vigencia de este Reglamento la actividad de los Centros Docentes de la UPV/EHU se ha incrementado, en busca de la excelencia académica y de gestión, lo que está suponiendo una mayor implicación de los equipos decanales y de dirección. Este aumento de actividad debe verse compensado en la modificación de los parámetros para la concesión de Vicedecanatos o Subdirecciones así como de sus límites máximos.

Por otra parte, parece oportuno aprovechar esta modificación para realizar una adaptación de carácter técnico, ya que la Ley Orgánica 4/2007, de 12 de abril, por la que se modifica la Ley Orgánica de Universidades ha introducido cambios en la normativa universitaria en vigor, especialmente en cuanto a la configuración de los órganos colegiados y los requisitos para poder ser órgano unipersonal.